

ESANAK

JOSEBA EGIBAR
(EAJko bozeramailea)

«Aznarrek eta Zapaterok esparru erabat gaiztora eramane nahi dute Euskal Herria»

ANTTON MORCILLO
(Batasuneko eleduna)

«Aznarrek besteen samina erabiltzen du estrategia politiko batzuk aurrera eramateko»

CARLOS URKIJIO
(PPko legebiltzarkidea)

«Batasunak, abstentzioarekin, terroristekin bat egin du eta babesa eman die»

RODOLFO ARES
(PSE-EEko bozeramailea)

«Demokraziak Batasunaren aurka jardun behar du, demokraziari isekarik egin ez diezaion»

RAFAEL LARREINA
(EAKo Antolakuntza idazkaria)

«Une honetan Batasunaren teilatuan dago pilota»

dauka bide horretatik» ez doala inora, adierazi zuen.

Euskal Herriko gatazka politikoari konponbidea bilatu behar zaiola adierazi zuen Morcillok, eta irtenbidea herri baten existentziaren onarpenetik etorriko dela iritziz. Baina hori bai, ohartarazi zuen Batasuna ez dela «sekula estatuaren aurrean makurtuko».

Hirukoaren testua

Eusko Legebiltzarrak ETaren azken atentatua arbuiatzeaz gain, EAJ, EA eta EB-IUren nahia zen atentatuaren gaitzespen oharrean salatzea abertzaletasuna ETaren indarkeriarekin nahastu nahi dituzten «estrategia eta kanpainak». PP eta PSE-EE, hirukoaren asmoaren aurka azaldu ziren, eta ondorioz, Bozeramaileen Mahaia beste bilera bat egin behar izan zuen bigarren testu hori eztabaidatzeko. Azkenean, Jaureritzaren hirukoaren babesarekin onartu zen testua, PPk eta Batasunak kontra bozkatu zuten eta PSE-EE abstenitu egin zen

«Planto demokratikorako» deia egin die Otegik alderdi abertzaleei

«Faxismoaren kontra» manifestazioa egingo dute igande arratsaldean, Donostian

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Euskal Herria «agertoki oso gordin batean» kokatzen ari dela adierazi zuen atzo Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak, Donostian. Batasunaren kontrako ekinbideak ez dira soilik alderdi horren kontra, Otegik dioenez, baizik eta Euskal Herriaren kontra, eta horregatik herri gisa erantzun behar zaiela dio. Bide horretan, igandean Donostian egingo duten manifestazioan parte hartzeko deia egin zuen. «Faxismoaren aurka» izango da, eta arratsaldeko 17:30ean abiatuko da Bulebarretik.

Batasunaren ilegalizazioaren afera ez da afera juridikoa Otegirentzat, afera politikoa baizik. «Eztabaida da noiz arte jarraitu behar dugun horrela, eta zergatik ez ditugun behingoz soluziobideak planteatzen eta estatuari aurre egiten». Hala, alderdi abertzaleei «estatutu espainiarrari planto demokratikoa» egiteko deia egin zien. «Esan diezaiotela estatuari ez, eta Euskal Herriari bai». «Hori ez da mendira jotzea eta arduragabea izatea. Arduragabea izatea da, esatea beste bi mendez itxaroten jarraitu behar dugula, auskalo zein koiunturatan Madrilgo diktadortxo batek erabaki dezan ea espetxera joan behar dugun edo ea euskaraz hitz egin dezakegun».

Batasunaren ilegalizazio prozesua Santa Polako atentatuaren ondorio dela pentsatzea «okerra» dela esan zuen Otegik. «PPk gobernura iritsi zenetik izan du helburu hori, eta horren logika da gobernuak ez duela irtenbiderik nahi. Ilegalizazioaren helburua da gatazka luzatzea eta irtenbiderik ez ematea».

Primo de Riveraren diktaduraren garaia errepikatzen ari dela bere ustez. «Orduan ere alderdi batzuk legez kanpo utzi zituzten. Ez du balio beste alde batera begiratzeak. Hori da alternatiba konstituzionalista», esan zuen. Eta ondoko galdera egin zion Juan Jose Ibarretxeri: «Estatutuak, Gasteizko Gobernuak, zein alternatiba dute hori ez gertatzeko? Ez dute alternatibarik, Estatutuak marko honen tresna bat besterik ez delako», erantzun zuen segidan.

Gerra karlistak, Espainiako Gerra Zibila eta Francoren



Juan Jose Petrikorena eta Arnaldo Otegi, atzo, Donostiako prentsurrekoan.

diktadura aipatu ondoren, Miguel Sanz Nafarroako lehendakariak ikurrina jartzen duten udalei diru laguntzarik ez emateko asmoa aipatu zituen Otegik. «Eta gure estatutuak eta gure autogobernuak eta gure lehendakariak zein tresna daukate hori ekiditeko?».

EAJ, EA eta EB-IUren erantzuna

Eusko Jaureritzako alderdiek berehala erantzun zioten Otegiaren deiari. Joseba Egibar

EAJko bozeramaileak esan zuen Batasunak badakiela non duen bere «gabezia». Gogoeta politikoa egiteko esan zion Batasunari, «ez diezagutela guri adorea eskatu. Adoreak gutxienik banatuta egon behar du, eta bakoitzak duen neurrian erabiliko du».

Rafael Larreina EAKo legebiltzarkideak Batasunari esan zion EAK jada aurre egiten diola Estatuari. Batasunak Estatuari jokoa egiten diola esan

zuen Larreinak, eta aurre egin nahi badio, indarkeria «onartezina» dela esan beharko lukeela alderdi horrek.

Juan Sanchez Vallejo EB-IUko presidentziako bozeramailearen hitzetan, berriz, «egin beharreko planto bakkarra ETaren aurrean egin beharrekoa da». Edozein modutan EBk ez duela inoren aurrean plantorik egingo esan zuen, elkarriketaren aldeko direla erantsiz.

CANAL BIZKAIA Bizkaiko Telebista

ABUZTUA 08 OSTEGUNA	
09:00	KONTZERTUA: "Travis" (1ª Parte)
09:30	LAS AVENTURAS DE SHIRLEY HOLMES: LA COCINA DE LOCALIA
10:00	COCINA: "DESCUBRA LA PASTA"
10:30	DOCUMENTAL: "VETE ENTERANDOTE"
11:00	KONTZERTUA: "Him" (1ª Parte)
12:00	TELENOVELA: CARITA PINTADA (episodio 98)
13:00	ELLA JARDÍN
13:30	LA COCINA DE LOCALIA
14:00	BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
14:30	PLANETA VERANO
15:00	NOTICIAS LOCALIA
15:30	SERIE. (Cap 37 y 38) "EL SEÑORIO DE LARREA"
16:30	SERIE (Cap 41) "ENTRE DOS FUEGOS"
17:30	TELENOVELA: CARITA DE ÁNGEL (Cap 115)
18:15	HOLLYWOOD EN PERSONA: "Gloria Stefan"
18:45	TXIKIAREA
19:00	ARRAUN 2002
19:20	PLANETA VERANO
19:35	MTV. CANAL MUSICAL
20:00	LAS CHICAS DE ORO: "Golpea el tambor, Atanley"
20:30	BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
21:05	NOTICIAS LOCALIA
21:30	PLANETA VERANO
21:45	MAGACÍN: "TAQUICARDIA DE VERANO"
22:15	CINE: "Cien Hombres"
00:00	CINE: "Habla mudita"
01:30	SURFTIME
01:55	WORDL SPORT
02:20	PLANETA VERANO (R)
02:30	MTV. CANAL MUSICAL
05:00	AGENDA CANAL BIZKAIA

AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA ELIZATEKO UDALA

IRAGARKIA	ANUNCIO
"KANDELAZUBIETA KALEKO 21ean DAGOEN GARAJEA IRAGAZGAI, INGURUKO HORMAK KONPONDU ETA FORJATUA BURUTZEKO" LANAK KONTRATATZEKO PROZEDURA ARAUPETU DUEN BALDINTZA PLEGUA ONESTE 2002ko abuztuaren 5ean iragarki hau bidali da BAOera, bertan argitaratu dezaten. 2002ko uztailaren 23an eman zuen 683 Dekretuaren bidez Leioako Udalak onetsi egin zuen "Kandelazubieta kaleko 21ean dagoen garajea iragazgai, inguruko hormak konpondu eta forjatua burutze" lanak kontratatzeke Udalaren zerbitzu teknikoek idatzi zuten baldintza plegua. Hona hemen pleguaren oinarriko ezaugarriak: - Prozedura: Lehiaketa irekia. - Litzitazio oinarria: 231.986,18 euro (BEZ barne). - Burutzeko epea: 4 hilabete. - Izan beharreko sailkapena: taldea: C; erakuntzak; Kategoría: C). Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi duen Toki Araubideko indarreko Legeko Xedapenen Testu Bateginaren 122. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintzen plegua jendaurrean egongo da zortzi (8) astegunetaz, iragarki hau BAOean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta eta nahi duenak alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Ilido berean, egutegiko hogeita sei (26) eguneko epearen barruan eskaintzak aurkeztu ahal izango dira, iragarkia argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Alabaina, baldintzen pleguaren aurka erreklamaziorik aurkeztuz gero, proposamenak irekitzeko eguna atzeratu egingo da. Baldintzen plegua eta gainerako agiriak Udalaren Bulego Teknikoan (udaltxeko 3. solairuan) eta Cianoplan enpresaren egoitzan (Gibon, Plentziako hiria kaleko 6. beheko solairua) daude ikusgai eta nahi duenak bulego-orduetan aztertu ahal izango ditu. Leioan, 2002ko abuztuaren 5ean. JARDUNEKO ALKATEA Sin.: Eneko Arruebarrena Elizondo	APROBACION DEL PLIEGO DE CONDICIONES REGULADOR DEL PROCEDIMIENTO RELATIVO A LA CONTRATACION DE LAS OBRAS CONSISTENTES EN LA "REPARACION DE LOS MUROS PERIMETRALES, FORJADO E IMPERMEABILIZACION DEL GARAJE DEL INMUEBLE NUM. 21 DE LA C/ KANDELAZUBIETA" Con fecha 5 de Agosto de 2002 se ha remitido el siguiente anuncio para su publicación en el B.O.B.: Mediante decreto núm. 683, de fecha 23 de Julio de 2002, el Ayuntamiento de Leioa aprobó el Pliego de Condiciones redactado por los Servicios Técnicos municipales, con objeto de contratar las obras consistentes en "Reparación de los muros perimetrales, forjado e impermeabilización del garaje del inmueble núm. 21 de la c/ Kandelazubieta", con las siguientes características básicas: - Procedimiento: Concurso abierto. - Tipo de licitación: 231.986,18 euros (I.V.A. incluido). - Plazo de ejecución: 4 meses. - Clasificación requerida: Grupo C; Edificaciones; Categoría: C). De conformidad con lo señalado en el artículo 122 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de Abril, se exponen al público durante un plazo de ocho (8) días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el B.O.B., los Pliegos de Condiciones, a efectos de presentación de alegaciones. En el mismo sentido, se comunica que podrán presentarse ofertas en el plazo de veintiséis (26) días naturales, contados a partir del siguiente al de la publicación anteriormente señalada, si bien se aplazará la apertura de las proposiciones cuando resulte necesario, en el supuesto de que se formulen reclamaciones contra los Pliegos de Condiciones. El Pliego de Condiciones, junto a la documentación complementaria se encontrará a disposición de quien desee examinarlo en las dependencias de la Oficina Técnica municipal sitas en la 3ª planta de la Casa Consistorial, en horario de oficina, y en los locales de la empresa Cianoplan sitos en Getxo calle Villa de Plentzia, núm. 6-bajo. Leioa, a 5 de agosto de 2002 EL ALCALDE ACCTAL Fdo.: Eneko Arruebarrena Elizondo